


19 zka 1994.eko uztaila


ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



musikaz
BLAI



**kapital
gehiketa**



Zuk zeuk erabaki!

**Egunkaria zer den?
Nora doan?**

**Zuk zeuk erabaki!
Egunkariaren partaide izateko egin zaitez akzio
baten jabe.**

Zertarako?!

**Boza eta botoa izateko Euskaldunon egunkariaren
Akziodunen Batzarrean
Egunkariak etxe berria erosteko (oraingoa alokatua
baita)**

Honako proiektu hauek eratzeko:

**asteleheneko alea
edizio berriak
informazio lokala**



Prezioa: 25.000na ptza akzioa

Argibide gehiago: **EGUNKARIA**
San Antonio 20 - 1
Tfnoa: 23 38 72
(Roberto)

**ARABA EUSKARAZ 94
LAPUEBLA DE LABARKA**

ESKERRIK ASKO !!



*Ikastolen Elkartea
araba*

EMAKUNDEekin
hizketan.
9. orrialdea



Jazzaldia, musikaren
jaia Gasteizen
12 orrialdea



Emakumeentzako
autodefentsa
ikastaroak
16. orrialdea.

kirolak, denborapasak,
erreportaiak...

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Opor merkeak etxeak elkarri trukatzuz

Hegalka

Zuberoako Kultur Zentroa
64130 Mendikota/Menditte
Zuberoa/Soule
Tfnoa: 07 33 59281410
(Beñat Negueloua)

Lagunak:

Ondarroan, Xiberoan, Hendaiian, Britainian edo beste nunbait bahi dituzue bakan-tzak edo oporrak iragan, bizilekua utzirik?

Nahi baduzue, ahal duzue... Berehala gogora heldu zaizue? «eta nola?» Bakantzetako epe-aldiarentzat norbaitek bere egoitza utziz eta zuk berdin eginez zure bizitegiarekin.

Idea hori (ez da guk asmatua!) nahi ukan dizuegu zabaldu zeren eta guk geuk joan den udan horrelako etxe aldaketak egin baititugu lagun batzuen artean. Arras aberasgarri izan zen, herri batzuen hobeki eza-gutzeko eta harreman berrien osatzeko ere, aipatu gabe diru abantailak.

Beraz, gutun hau bidaltzen dizuegu ikusteko zer abegi ukanen duen gure proposa-

menak. Gure ekimen hau Ipar eta Hegoaldeko Ikastola, Biarnoko Calendreta, Bretainiako Dixa-n, Alzazia eta Kataluniako eskoletako gurasoei ere igorri diegu. Erran gabe doa gure proposamena beste jende batzuei ere irekia izan daitekeela.

Interesatuak baldin bazarete, otoi dei egin ezazue telefonoz goiko aldean dagerren telefonoa edo berriro itzuliezazki-guzue gutun honekin doan galde-erantzun papera bai eta zuen izen eta helbidea eramango duen 3 gutun-azal eta ziguilauek ere.

Gure «lana» izanen da fitxa guzien biltzea eta haien bilduma zuei bidaltzea. Gero, bakoitzak sartu beharko du harremanetan gehienik interesatzen zaion bakantzetako bizitegiaren jabearekin.

Zuen erantzunak otoi heleraz lehenbaitlehen gure lehen zerrenda osoa ahalbait azkarren bidal diezazuegun.

Besterik gabe, agurrik beroenak eta laster arte.

Hegalka.

Hegalka

DEITURA, IZENA: _____

HELBIDEA: _____

TFNOA: _____ Zein hiriren ondoan? _____

ZUEN FAMILIAN zenbat haur: _____ adinak: _____

ZUEN EGOITZA

Zaharra ()	Etxe-aurre batekin ()	Baratze batekin ()
Etxe bat ()	Apartamendu bat ()	Herritik urrun ()
Hirian ()	Herri tipi batean ()	Terraza batekin ()

Nolako egoitza bilatzen duzue ?

Zaharra ()	Apartamendu bat ()	Isasaldean ()
Etxe bat ()	Herri tipi batean ()	Mendian ()
Hirian ()	Herritik urrun ()	Baserrian ()
Berria ()	Berdin ()	

Zein herrialdetan ?

NOIZ ?

OHARRIK

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria


1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri
Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo
Koordinatzaile eta Hizkuntz egokitzaileak: Inaxio Lopez de Arana
Komikia: Iñigo Sarasola
Maketazioa: Iñaki San Pedro, Alex Badillo
Publizitatea: Rakek Peña, Martin Rezola
Argazkilariak: Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia
Kolaboratzaileak: Txipi Ormaetxea, Oihier Zulaika
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

IZENA: _____ PISUA: _____
 ABIZENAK: _____ ZKIA: _____
 KALEA: _____
 Kode Postala: _____
 HERRIA: _____



1691
 Postakutxa
 GASTEIZ



Euskara Ba(n)tua

Ingelesa 10 • Euskara 0

Mundialak pil-pilean badaude ere, ez pentsa hau futbol partido bateko emaitza denik. Hobe hala balitz! Azken finean, futbola jolasa besterik ez da. Izan ere, azpтитuloa Aireportuko arduradunek eskolan baleude merezikio luketen nota baino ez da. Ingelesa ezinhobeto menperatzen omen dute. Euskara, ordea,...
 ...IRAILERAKO!!

Ondarroan, 1994.eko Ekainaren 1an

ONDARROAKO BARNETEGITIK

Kaixo denori!!!

AEKko bi ikasle gara eta gustatuko litzaiguke kontatzea gure esperientzia barnetegian eta orain arte bizitakoaz balantze bat egitea. Orain dela hiru hilabete etorri ginen. Ez genekien zer zetorkigun gainera, baina, hori bai, gauza bat argi geneukan. Gure asmoa «Euskaraz bizitzea» zen. Egia esan, lehenengo egunak pixka bat gogorak izan ziren, aldaketa bapatekoa izan baitzen. Hementxe, Ondarroan, Euskal Herri osoko jendea elkartu gara. Bakoitzak bere ekarpena egiten du. Denok ikasten dugu denongandik zerbait, eta uste dugu hori dexente garrantzitsua dela. Hilabete bat besterik ez zaigu falta bukatzeko. Hiru hilabete hauetan denetarik pixka bat igaro da (agurrak, eztabaidak, Herri Urrats, AEKanpada... eta abar) Baina orokorrean balantzea ona izan da. Gure hurrengo zita «La Pueblan» izango da, Araba Euskaraz-en (non eta muga). Hemen, kalean, Araba Euskarazeko materiala ikusten da (kamisetak, txanoak, motxilak,...) arrakastatsua izatea espero dugu. Bukatzeko, euskararen adle lan egiten duen jende guztiari agur bero bat bidaltzea gustatuko litzaiguke. Haiek gabe ez ginatekeen hemen egongo. AGUR.

GORA EUSKAL HERRI EUSKALDUNA
ARABAN ERE EUSKARAZ

Oskar Ezkerro eta
 Andoni Fdz de Pinedo.

BERTSOAK



Uztaila Gasteizen

Rikardo Gonzalez de
Durana Alzola

DOINUA:


Zortziko nagusia

I
 Kirolzaleak bete dezake
 deportareen kikara
 telebistatik futbol ikusia
 edo tourraren turrada.
 Opor usaina nabaritzen da
 hartu dezagun patxada
 Egunez lotan geldi gaitzeko
 paseatzeko da gaba.

II
 Eguraldia ona da eta
 giroa ez da eskasa
 urtero legez gura duenak
 aukeran daduka jazza
 Santiago edo berakatzaren
 eguna ez da jolasa
 denetarik probatu eta
 ahalik ondoen pasa

Ardatz itzulpen eta
 euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
 GASTEIZ



SEI EGUNETAN ZEHAR, aurtengo uztailean, Shoemaker-Levy 9 kometak, hogeita bat zatitan hautsita, Jupiter planetaren kontra joko du. Antzeko zerbait gertatu zen Lurrean duela 65 milioi urte dinosaurioak desagertu zirenean: orduan Yucatan penintsulan erori zen asteroideak 10 km. tako diametroa zeukan eta bere abiadura 30 km segundukoa zen. Dena den, Jupiterren ezaugarriak ez dira Lurrean bezalakoa eta beraz ez dakigu zehaztasunez oraingoan zer gerta daitekeen.

Tamalez, txokea Jupiterren alde ilunean gertatuko da. Dena den, Jupiterren errotazio-mugimendua azkarra denez gero, talka-gunea ikusteko

modua izango dute astronomoek, zeharka bada ere, txokea gertatu eta hamar minutuetara.

Izotz-zati txikienak uztailearen 16an sartuko dira Jupiterren goi-atmosferan, zati haundiena uztailearen 19-20an; eta bukatzeko, azken zatiak uztailearen 22an irentsiko ditu Jupiterren atmosferak.

Nukleoloek 60/65 km orduko abiaduran joko dute Jupiterren atmosferaren kontra. Horrelako meteorito bat Lurrean gainean eroriz gero lurrazala jasoaraziko luke. Izan ere, Jupiterren gainean eroriko diren zati batzuk 2,5 eta 3,4 km.ko diametroa daukate, hau da, 5 milioi

bonba atomikoren energia.

Energiaren parte haundi batek inguruko atmosfera berotuko du oso tenperatura altuetan. Minutu gutxiren buruan, gas beroak talka-gunetik gora egingo du tontor moduko irudia egingez, eta ehundaka kilometrotara igo eta luze-zabalera hedatuko da azkar baino azkarragoa.

Energiaren beste parte bat txoke-uhin bilakatuko da eta planetan barrena zabalduko da, Lurrean uhin sismikoek egiten dutenaren antzera. Txoke-uhin horiek kuluskadak eragin ditzakete planeta osoan kanpaia erraldoia bailitzan.

Kometaren hautsaren eta Jupiterren indar magnetikoaren artean ere hainbat gertakizun izan daitezke. Hautsa, abiadura haundiz joan-etortzerakoan, karga elektrikoa hartzen du eta, ondorioz, baliteke Jupiterrek ohiz baino askozaz erradio gehiago jaulkitzea.

Jupiterren inguruan dagoen eratzun toroidalean ere aldaketak izan daitezke. Io izeneko satellite suitsuaren bidetik hurbil, Horrela izanez gero, izarren "dei" motel bat jasoko genuke telefono-hotsa bailitzan.

Iñaki Gauna

MULTISOL, Modak ZURI BEGIRATZEN DIZUNEAN



BEGIRA IEZAIÖZU MODARI MULTISOL BATZUEKIN. DISEINURIK ERAKARGARRIENAK, PREZIORIK ONENEKIN: 1.950 pta.n ETA BEHAR IZANEZ GERO, KRISTALAK GRADUATUKO DIZKIZUGU. IKUS DEZAZUN! EZ ZALANTZARIK IZAN, MODAK ZURI MULTISOLEN BITARTEZ BEGIRATZEN DIZU. EEKO ARAUDIAREN ARABERA HOMOLOGATURIKO KRISTALAK.

GARANTIA OSOA
1.950 pta.n

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) - GASTEIZ

U daran ohizkoa denez, herrietako jaiak hasten dira eta jendea bertara hurbiltzen da. Asko dira gau-jaialdietan jotzen duten taldeak; horien artean, Araiaiko Joselu Anaiak. Beraz, gu berbenetako giroa zein araiar famatu horien berri emateko, talde horren arima den Joselurekin hitz egin dugu.



HAMABOST URTE daramatzate jotzen Ruiz de Gordoatar anaiek. Javier, Andoni, Felix, Jesus eta Joselu Ruiz de Gordoak osatzen dute Joselu Anaiak talde araiarra. Euskal Herriko bazter guztietatik ibili dira dagoeneko giroa alaitzeko asmoz, plazarik plaza, etenik gabe.

Joseluk aipatu digunez, “gure aitak trikitixa jotzen zuen eta bere eraginez nire anaia nagusiak izan zituen musika-erekiko aurreneko harremanak”. Gero anaia guztiengana zabaldu zen zale-tasuna. “Musika eskolan hasi ginen eta gutako bakoitzak hainbat musika tresna jotzen ikasi zuen”.

Joselu Anaiak osatu baino lehen “talde desberdinetan jotzen genuen, nire anaiek elkartzea erabaki zuten arte. Orduan ni ez beste anaia talde barruan ziren”. Bera

Joselu Anaiak Taldea udarekin batera berriro oldartuz

sartu zenean, izena erabakitzeko orduan, “Joselu Anaiak” izen egokia iruditu zitzaion, Joseluk esan digunez. “Ni azkena izan bainintzen sartzen”.

Gaur egun taldean Javierrek akordeioa eta teklatura jotzen du, Andonik tronboia eta bajoa, Felixek bateria eta ahotsa, Jesussek sintetizadoreak eta Joseluk ahotsa ipini eta gitarra ibiltzen du.

“**Gipuzkoa eta Iparraldean hemen baino folklore gehiago dantzatzen da**”

Plazetan jo ez ezik, lau diska kaleratu ere egin dituzte jadanik. Araiakoen lehen diskak “Araiatik Jaliskora” izena izan zuen; gero, “Ondo pasa” eta “Pausorik pauso” etorri ziren; eta azkenik, pasa den udan, “Laugarren dantza” plazaratu zuten.

Musika-estiloari dagokionez, guztiok noizbait entzun dugu talde horren rantxeraren bat, “Ai Anselma” kasu. Eurak izan dira lehenak rantxerak euskaraz grabatzen. “Berriro jendeak bikoteka dantza egitea nahiago du, erromantizismora itzulera bat dela uste dut, eta gazteen artean ere joera hori nabarmena da”.

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 *errikoia*



Iparraldean hemen baino folklore gehiago dantzaten da: zortzikoak, fandangoak..."

Bestalde, "herrietan hirietan baino giro jatorragoa izaten da, jendearen artean komunikazio handiagoa gertatzen da". Hirietan jendea gutxiago integratzen dela gaineratu du araiarrak.

Jaietan ibiltzen diren taldeen lana udan ikusten da batez ere, "urtaro horretan jotzen baitugu gehienik". Aldiz, lanik gogorrena neguan egiten dute: "Kanta berriak prestatu, tresneria berriztatu... beraz, urte osoko lana da".

Araia aldeak Nafarroarekin muga egiten duenez, han jotzeko aukera sarritan izaten

dute. Hasieran, kantaldietako %70 Nafarroan egiten zuten. Orain, oster, Euskal Herri osoko herrietan jotzen dute; adibidez, uda honetan Goierri, Zumarragan, Araia, Miarritzen, Bilbon, Gasteizen, San Ferminetan... izango ditugu ikusgai.

Beraz, herrietako jaietan zuek ere izango zaretelakoan bagaude ere, bertan ikusle edota dantzari ihardun ezinik izango zaretenontzat edo beste edozeinentzat albizte pozgarri bat: Joselu Anaiak taldeak diska berri bat kalera-tzeko asmoa du hurrengo udarako. □

Susana Calleja & Itziar Mtz de Santos

Dena dela, taldearen musika ez da rantxeretara soilik mugatzen. Argi daukate berbenetan giro eta jende oso desberdina dagoela. Horregatikxe, denetariko musika jotzen dute, noski, beren musika estilotik aldendu gabe. "Garaian garaiko musika estiloari egokitzen saiatzen gara; esaterako, orain dela sei edo zazpi urte rock radikalaren mobidak eta dantza solteak indar handia zuten. Orain, berriz, estu-estu dantza egitea hobetsi ohi du jendeak".

Giroa ez da soilik denborarekin aldatzen, herrien artean ere desberdintasunak ikusten dira. "Gipuzkoan eta

“**Herrietan hirietan baino giro jatorragoa izan ohi da**”



**DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA**
Telefona: 23 17 13

TXUSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

**ELKARTASUN DENDA
ELKARTASUN DENDA**
Kutxileria 15 Gasteiz
Tfnoa: 25 51 41

Kalea mintzo... ustelkeriaz

Uste al duzu ustelkeria kasu gehiago dagoela izkutuan
Orain arte ezarri diren zigorren bidez aurre egin al
dakioke ustelkeriari

Egunez egun ustelkeria kasuak ugalduz doaz politikaren munduan. Lehen ezezagunak ziren hainbat deitura (Roldan, Rubio etab.) orain txitean-pitean aditzen dira ezein solasalditan. Gisa horretako iruzurra ez da norbanako soil baten arazoa, gizarte osoarena baizik. Geu aldizkarikook kalera atera gara jendeak horretaz duen iritzia jakin nahirik.



PILAR VAZQUEZ
Zerbitzaria

1. Bai oraindik pilo bat dago; horixe da politika mailan gehien arduratzen nauena.
2. Hori ez da nahikoa, eta gainera, jende horrek besteok baino pribilegio gehiago izaten du.



MIKEL DIAZ
Pulidorea

1. Bai, dudarik gabe, orain arte egin dutena beraien aurpegia garbitzeko besterik ez da izan.
2. Ez, zigor horiek ez dira zuzenak izaten eta, are gutxiago, gero, fidantza ordainduta, bost minuturen bueltan berriro kalean badira. Ez dago eskubiderik.



ALBERTO ORTIZ VADILLO
Nekazaria

1. Bai, horrelako hamaika kasu plazaratuko da oraindik ere. Gainera, beren kargua uzten dutenak gauzarik garrantzitsuenak esan gabe joaten dira.
2. Ez, nire ustez zigorrak bigunegiak dira. Lapur horiek bizitza osorako kartzela-zigorra merezi dute.



MARIA EUGENIA
GALLEGO
Tabernaria

1. Bai, noski. Oraindik kasu asko daude argitzeko ez baita ona haientzat egia argitara ateratzea.
2. Ez, gartzelan sartzen dituzten arren, aurrerantzean ere pribilegio asko izaten jarraituko dute



IÑAKI AIUKAR
Tabernaria

1. Bai, eta gainera, PNV, PSOE eta PP, elkar harturik, kasu horiek izkutatu nahiean dabilta.
2. Ez, hori ez da nahikoa. Pertsonak ez dira berdin neurtzen. Esaterako, horiek bezalako tipo bat eta ni ez gara berdin kontsideratuak.



MAITE PEREZ
Ikaslea

1. Bai, jakina. Telebistan eta egunkarietan agertzen dena egia osoaren erdia baino gutxiago da.
2. Ez, eta okerren ikusten dudana zera da: batzuk espetxetik ateratzea dirua dutelako. Beraz, ezin da esan denok eskubide berberak ditugunik.

Kazetaria: J. J. Kastresana «Gutxi» • Argazkiak: Joseba Unzalu

Cervecería Alemana

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Emakumeen egoeraz mintzo

Elkarriketa hau Emakundeko Arantza Zugasti (Prentsa arduraduna) eta Ana Agirre (Hezkuntza arduraduna) andreekin Gasteizko Magisteritza Eskolako 1.ºgo kurtsoko Haur Hezkuntza eta Heziketa Fisikoa espezialitatetako ikasle talde batek irakaslearen laguntzaz eginikoaren laburpena da, *Zer proposatzen da emakumeen oportunitate berdintasuna lortzeko?* izeneko lanaren barnean, "Euskal Herriko gaurko errealitate soziala eta naturala" izeneko asignaturan.



Zer-nolako garapen izan du Emakundek?

Emakunde sortu zen Parlamentuan 1988an onetsiriko lege baten ondorioz. Zuzendaritza 1989.ean izendatu zen, eta gaur gauden talde hau osatzen joan da. Hasieran Itziar Fernández (Idazkari Nagusia) eta Txaro Arteaga (Zuzendaria) hasi ziren Gasteizko bulego txiki batetan, eta geroztik egitura handitzen joan da.

Zeintzu dira lehenbaitlehen konpontzeko dituzuen arazo nagusienak?

Lehenengo zeregina Ekintza Positiboen Plangintza betetzea da. Eginkizun hori ez da gurea bakarrik baizik eta Administrazio guztiena. Gure zeregina izaten da gutxi gora-behera lan horiek bultzatu, dauden beharrak neurtu eta planteatu, administrazioak dauzkan konpetentziak

bakoitzak bere mailan gara ditzan: udalak zein diputazioak edota gobernuak. Kanpainak eta iniziatibak ere egiten dira gizarte osoari zuzenduak.

Emakundera jotzen duten emakumeen artean, zer motatako arazoak dira ugariak?

Ba bueno, guk beti esaten dugu emakumeak ez garela bat asko baizik. Emakumeen artean kolektibo desberdinak daude eta behar oso desberdinekin, gu saiatzen gara behintzat dauzkagun neurrien artean era guztietako emakumeen beharrak betetzen. Gure helburu nagusia izaten da nolabait beren errol tradizionaletik atera nahi duten emakumeak eta bizitza proiektua daukatenak. Askotan leporatu digute etxekoandreez ez garela arduratzen eta aitortu behar dugu etxekoandreen papera inportantea dela.

Haiei esker, asko eta asko kalera ateragare, baina gure helburua ez da emakumeak etxekoandre izaten jarraitzea baizik eta emakumeak langile eta edozein profesional bezala tratatuak izatea. Alde horretatik era guztietako emakumeak daukagu kontutan baina helburua da pertsona guztiek beraien bizitza proiektu autonomoa eduki dezatela.

Beste erakundeekin zer harreman daukazue?

Erakunde ofizialekin nahitanahiezko harremanak daukagu, zeren gure plangintzaren zenbait helburutan beraiek nahitanahiez parte hartu behar duten. Hortik aparte, beste era batekoak, adibidez, unibertsitatearekin, ikerketak egiteko, abokatuekin edo edozeinekin, ihardunaldiak egiteko, irakasle elkarteekin etabar. Hau dela eta, administrazioa

ez direnekin ere baditugu harremanak, baina argi utzi nahi dugu administrazioekin dauzkagun harremanak direla batez ere obligazioa daukatenak gure helburuak betetzeko.

Emakumeek dituzten eskubide, baliapide eta laguntzei buruzko kanpainak egin al dituzue?

Bai, momentu honetan, kanpaina bat egiten ari gara, maiatzaren 2an hasi zen eta horren helburua hain zuzen ere hori da, Emakunde erakunde bezala eza-gutxera ematea, eta baita ere, emakumeek dauzkaten errekurtsoak, baliapideak eta elementu guzti horiek zabaltzea. Dena dela ez da lehengo aldiz, aurretik ere honelakorik egin dugu, beraz hori da etengabe mamitzen den kontu bat.

Uste al duzue gizarte zerbitzuetan emakumeen problematika bereziaren gaineko sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzen dela?

“Era guztietako emakumeen beharrak asetzen saiatzen da Emakunde”

Esan beharra dago, lehen ez zeuden zerbitzu batzu orain badaudela, beraz horrek aurrera pausu bat suposatzen du. Behar horiek ez ziren kontutan hartzen eta momentu honetan hor daude. Horretaz aparte, emakumeek problematika berezi bat jasaten dutela onartu beharra dago, eta hori, batez ere, familia desegituraketarekin (banatzeak, dibortzioak, ama bakarreko familiak,...) lotuta dago, eta zer esanik ez, emakumeek jasaten dituzten tratatu txarrak, bortxaketak, eta horrelako erasoei erantzuna ematen saiatzen gara. Hori dela eta, momentu honetan, hiru diputazioek eta udal guztiek emakumei zuzendutako zerbitzuak dauzkate. Gainera, badaude, zenbait tokitan behintzat (Durango,

Bilbo, Laudio, Gasteiz eta Donostia) zerbitzu berezi batzu, “Servicios de atención psicológica” deiturikoak, tratatu txarrak eta erasoak jaso dituzten emakumeentzat.

Uste al duzue emakumeen partaidetza onarritzko gizarte zerbitzuetan komenigarria dela?

Nik uste dut egoera egokiena dela gaur egunean, baina iritsi beharko ginatekela gizonezko eta emakumezkoak bertan egotera zeren hori da egoera ideal; egia da seguruaski garai batetan emakumeak sentsibilizatuago daudela egoera batzuen aurrean, behar bada emakume polizia batek hobeto uler dezake egoera bat gizonezkoek baino. Horrekin ez dut esan nahi gizon batzuk ulertuko ez dutenik, baina bortxaketa jasan duen emakume baten aurrean emakume polizia batek zihur aski konpenetrazio gehiago izango du.

Zergatik ez dute salatzen jasandako biolentzia sexu eraso biktimak askok? Informazio ezagatik, gizartearekiko beldurragatik, ...?

Guzti horrengatik, baina bigarrena oso inportantea da, beldurra: “zer esango duten?” Alde batetik, ez dakizu nora jo, lehengo poliziara edo medikuarengana?, bestaldek, ez zara ausartzen etxekoei kontatzen. Guzti horren gainetik, gaur egun oraindik suertatzen den beste elementu batengatik, hau da: errutasuna; emakume asko oraindik biktimak sentitu beharrean errudun sentitzen dira, gizartean pentsamolde hau oso ezarrita dagoelako, askotan entzuten dugu: “berak bilatuko zuen”, “jantzita joaten den bezala” eta emakumeok hori nahi gabe barneratzen dugu. Beste askotan ere, etxe barruko gauza dela eta kanpoan ez direla enteratu behar etabar pentsaten da.

Eraso horiek etxe barruan gertatzen direnean, sarritan arazo handiena izaten da emakumeek ez daukatela baliapiderik



Erdian eta ezkerretara Ana Agirre. Erdian eta eskubitara: Arantza Zugasti. Aldamenetan: Gasteizko Magisteritza Eskolako ikasleak



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

**esperantoa
denona!**



Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

etxetik aldegitiko, askok ez dutelako lanik izaten, edo bizitza proiektu autonomorik eta ekonomikoki dependienteak direlako. Sentimenduen oso lotuta dago ekonomi menpekotasunarekin, emakume bat independentea den neurrian, ekonomikoki eta sozialki, bere harreman propioak dituenen, bere bizitza, bere lana, bere dirua, ...askoz autonomia handiagoa dauka menpekotasun emozional hori puskatzeko

“Bortxatutako emakume asko errudun sentitzen dira biktima baino.”

Marginazio egoeran dauden emakumeak, prostituzioan dihardutenak, droga arazoetan dabiltzanak,... ezagutzen al dituzte beraien eskubideak?

Marginalak direnez zailtasun asko dituzte beren egoeragatik. Dena den, beraien eskubideak ezagutzen dituzte. Arazo larrena da ez dakitela zer baliabide dituzten egoera horretatik ateratzeko. Eta horretarako zerbitzuak daude, adibidez, Bilbon konkretuki zerbitzu batzuek bultzatu ditugu prostitutei irtenbide edo baliabideak emateko beraien mundutik atera daitezten. Gainera, kontutan izan behar dugu pertsona hoiek ez daukatela inongo errekurtsorik marginaziotik ateratzeko, onartzen dute beraien lana beste erremediorik ez daukatelako. Epe luzerako erronka formakuntzan datza beste lan mota bat aurkitzeko, beraien autoestima (norberaren irudia) hobezatela azken finean.

Publizitate mundua dela eta, nola ikusten duzue emakumearen irudia?

Emakumeok gizarte honetan lortu baldin badugu maila konkretu bat, hau da, gure

burua agertzea, partaidetza, protagonismoa,... gaur egun publizitateak ez dio errealitate horri erantzuten eta erantzuten ez dion heinean, atzeraka goaz. Egia da, emakume gehienak gaudela oraindik etxeko arduradun bezala. Baina adibidez, garbikariak saltzeko publizitate mezuak emakumeei zuzendu behar bazaizkie, emakumeek erosten omen dituztelako. Horrek ez du esan nahi desesperaturik edo obsesionaturik gaudenik gure gizo-



naren alkondara txuria gure aldamenekoaren baino txuriago lortzeagatik.

Publizitate lege bat ia eginda dago, eta hor argi eta garbi azaltzen da punturen batean: “se considera publicidad ilícita aquella que atente contra la dignidad de las mujeres”. Baina gero hor dago bakoitzaren interpretazioa, batzuentzat duintasunaren kontrakoa dena besteentzat ez da. Gainera, puntu bat dago oso arriskutsua, alegia, publizitate mailan

hitzegiten dugunean zertaz ari garen: sexoaz ala sexismoz. Gauza bat da emakumearen eta gizonaren irudia, hau da, larru bizitan ateratzea, hori da sexoa nolabait esateko; eta beste gauza bat da diskriminazioa eta hori sexismoa da. Askotan emakumea biluzik ateratzen denean esaten dugu: “jo ke pasada” baina horri dagokionez, gizo-na ere poliki-poliki instrumentatzen ari dira, eta beste gauza bat da biak konpa-ratuz non azaltzen den diskriminazioa, hori da sexismoa. Diferentzia nabaria da, emakumeak eta gizonak jokatzen duten papera estereotipaturikoa, zer produktu zuzentzen zaion bakoitzari. Horretan nik uste dut badaukagula lan handia egiteko, jendea ere mobilizatu behar da, eta emakumeak kontzientziatu beharko lirake azaltzen den irudia ez bada egokia ala zuzena produktu horri boikota egiteko. Maila horretan eragin handia dugu, gu garelako eguneroko erosketak egiten omen ditugunak.

Egileak:

Idoia Barrera • Susana Etxenagusia
• Diana Garrido • Amaia Kastaños
• Ana Larrea • Maite Marin •
Teresa Nuño • Oihana Urkia



Ederki

argazki estudioa

Olagibel, 64
Telefonoa: 27 50 85

IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak


TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Jazzaldia, musikaren jaia Gasteizen

Gasteizko Jazzaldiaren hamazortzigarren edizioa ospatuko da aurten. Donostiako Jaialdiaren itzalean jaiotako jazzaldi honek nazioarteko maila lortu du urte guzti hauetan. Musikorik onenak ekartzen ditu urtero. Aurtengoa "luxozko egitaraua" dela azaldu digu Iñaki Añua jazzaldia zuzentzen duen gizonak. Bost eguneko emanaldien atzetik urte osoko lana dagoela aitortu digu Añuak. Guk lan horren emaitzaz goatzeko aukera izango dugu uztailaren 12a eta 16a bitartean

Leire Lopez de Aberasturi



AURTEN LUXOZKO EGITARAUUA

izango dugula azpimarratzen du Iñaki Añua Gasteizko Jazz Jaialdiaren zuzendariak: "Estatuan inoiz jo ez duten musikak ikusiko ditugu Gasteizen". Horretaz gain, jazz mota ezberdinak entzuteko aukera ere izango da; B.B. King-en esku-tik helduko den jazzaren sustraia den blues musika, ezagunago egiten zaigun Natalie Colen estiloa edota azken urteotan askorentzat onena den Wynton Marsalis ezagutu ahal izango dute Mendizorrotzara joango direnek.

Jazzaren izar guzti horiek biltzeko 80 milioiko aurrekontua behar izan dute antolatzaileek. "Horrek izugarri beldurtzen nau milioi erdiko aurrekontua genueneko garaia gogoan dudalako. Orduan %10 galtzeak ez zuen ezer handirik suposatzen, egun 8 milioi dira". Aurrekontuaren %70 musikariak ordaintzeko izaten da eta Iñaki Añuak azaltzen duenez, "horren arabera, Gasteizkoa Europar dagoen jaialdirik merkeena da".

Gasteizko antolatzaileak Europako Jazz Jaialdien Federazioaren kide dira. "Jendeak ez du elkarte hori ezagutzen baina bere presioaren eraginak artisten prezioak jeistea eta gure Jazzaldia igotzea ahalbideratu du".

Zuzendariak azaltzen duenez Gasteizen Europar baino askoz ere gutxiago ordaintzen da musika emanaldi on bat entzuteagatik: "Edozein tokitan Natalie Colen kontzertu batera sartzeko 6.000 pezeta ordaintzen dira", gasteiztarrok Natalie Cole eta Wynton Marsalis ikusiko ditugu 2.000 pezeta baino gutxiago ordainduta. Hori jaialdiak lortu dituen laguntza eta sponsorrei esker da.

Hamazortzi urte hauetan jaialdiak garapen izugarria izan du. "Gasteizkoa Donostiako Jazz Jaialdiaren itzalean jaio zen, hori ez dago ukatzerik", gogoratzen du Iñaki Añuak, "orain ezin dugu pentsatu ere egin artista beltzarik gabeko jazzaldi bat egon daitekeenik baina laugarren urterarte ez genuen musika honen sortzaileak diren beltzak entzuteko aukera izan". Mendizorrotzan entzun den musika mota ere aldatzen joan da denborarekin. "Gasteizen ez zegoen zaletasunik eta beraz, entzuteko atsegina den jazz klasikoa eta entzuleak erakartzeko artista

“Aurten 80 miloiko aurrekontua dugu, eta horrek izugarri beldurtzen nau”



ezagunak ekartzen genituen gehien bat, Ella Fitzgerald edo Sara Vaughan, kasu". Gero, gaur egungo musika sartzen hasi zen jazzaldiaren egitarauan: Chick Corea, Pat Metheny, Keith Jarrett...

Horrela, "jazza adituentzako musika dela uste zutenak hori topiko bat dela konturatu eta jazzaldia erakarri genituen", dio Añuak. Dena den, gasteiztarrok oso erantzun ona eman diote beti jazzaldiari.

Kalitatearen aldeko apostua

Gasteizko Jazzaldiaren gidariek kalitatearen aldeko apostua egin dute hasieratik. Eta Jaialdiak nazioarteko maila lortu badu emanaldien kalitateagatik da, zalantzarik gabe, baina baita antolatzaileek egin duten lanari esker.

Bost eguneko jaialdiaren atzetik urte osoko lana baitago.

"Zein den Gasteiz bezalako hiri txiki batek Estatuko Jazz Jaialdirik onena antolatzearen arrazoia? ez dakit", esan du zuzendariak. Baina arrakastaren atzetik atseginez egindako lan gogorra dagoela susmatu daiteke; agian, jazz izugarri maite duen 'zoro' bat dagoelako bertan, eta horrek jazz eta bere hiria ezagutzera emateko lan egiten duela", onartu du Iñakik irrifarre batez.

Antolatzaileen iritziz, kontzertuen egoitzak ere garrantzi handia izan du bere garapenean. "Mendizorrotzak oso akustika ona du, batez ere kiroldegi bat dela kontutan hartuta". Gasteizko kiroldegiaurre neurria ere ezin aproposagoa omen da: "Errentabilitatea bermatzeko haina jende sarten da baina azken muturrean egonda ere eskenatokia ondo ikusten da".

Iratxe Bidaiak

Gorbea 12 • Tfnoa: 22 00 16 • Fax: 24 84 07
GASTEIZ

uztaileko ofertak

Aste bat: Hegazkina + hotela

TUNEZ 47.400
MARRAKESH 46.900
ATENAS 56.500
KUBA 85.900
PRAGA+BUDAPEST 99.900
RUSIA 102.400



**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

“**Lortzen ditugun irabaziekin kontzertuak antolatzen ditugu urtean zehar**”

Iñaki Añuak urrekontuak kezkarri zaizkiola aitortu digun arren Gasteizko Jaialdiak irabaziak izaten ditu urtero: “Urtero 85ean ezik, urte horretan dolarrak 195 pezeta balio zuen eta artistei ordaindu eta gero kontuak ez ziren irtetzen. Lau urte behar izan genuen zorra kitatzeko”


Diru-etekinak urte osoan zehar kontzertuak antolatzeko erabiltzen dira. Hala ere, jaialditik kanpo egiten diren kontzertu horiek ez dute merezi hainbat arreta eskuratzen. Horregatik Iñaki Añua kexu agertzen da: “Jazzaldian zehar komunikabideak guri begira egoten egun osoan, hortik kanpo berriz, oso zaila da giro berezi hori lortzea”.

Jazzaren izar ezagunek hirian hain agerikoa izan ohi den giro berezi hori sortzen laguntzen dute, noski. Baina horiekiko harremanak ez dira beti errezak izaten. “Ez dira pop kantariak bezain bereziak baina batzuetan arazoak sortzen

dira”. Musikarien eskaerek behin baino gehiagotan harritu dute Iñaki Añua: “Baina hala ere, beste munduko ezer eskatzen dutela ere ezin daiteke esan”. Orain arte ezagutu duen abeslaririk bereziena Natalie Cole dela aitortu du Añuak, “liburu bat bidali du bere eskaera guztiekin, ez du gauza arrarorik nahi baina oso eskaera zehatzak egiten ditu”.

“**Jazzaldia ez zen berdina izango Mendizorrotzatik joango bagina**”

Zuzendariak ez zigun jaialdiko emanaldirik onena zein den esan nahi izan, “ezin da esan. Jazzaren jarraitzaile sutsua bazara 13an kontzertu zoragarria ikusteko beta izango duzu: Kenny Barron eta Joe Henderson; 14an, berriz, Natalie Cole eta Wynton Marsalisek joko dute, hau jazza ezagutzen ez dutenek ere gustoko izango dute hau guztia; 15ean B.B. King... Guztiak izango dira onak”. Joan aurretik aholku bat eman zigun: “jazzari buruzko aurreiritzirik gabe joan behar da, horrela konturatuko zarete musikak harrapatzen zaituela”.



GARNICA

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

Euskara Araban



EUSKARA ARABAN
EL EUSKERA EN ALAVA

ARABA EUSKARAZ egunean, -La Puebla de Labarkan- salgai jarri zen liburuxka honetan Euskarak gure herrialdean izan dituen gorabeheren berri ematen digu Joseba Intxausti egileak.

Liburuak bi atal ezberdin ditu, oso ondo bereizita: atal nagusian -euskarazkoa (nahiz eta argazkien oinak erdaraz agertu)- historiari mintzo zaigu. Oso irakurketa atsegina duzue bertan, batez ere bitxikeriak maite badituzue.

Bigarren zatia, ordea, bi orrialde baino ez ditu. Bertan Euskarak gaurregun herrialdean bizi duen egoera ageri zaigu:

ezagutza, jarrera eta erabilpena.

Egia esan, asko hitzegin da Araban euskarak izan duen paperaz, asko, batez ere zenbaitek euskara arrotza zitzaigula arabarroi sinestarazi nahi izan digunetik. Honako hau erantzun polita izan daiteke. Irakurri bestela ondoko paragrafoa:

«III. milakadaren atarian eta Europara goazen honetan, hizkuntzaren altxor zaharra aspaldidanik baino biziago du bere baitan Arabak, eta ez iparraldeko mendialdeetan bakarrik, baita Lautadan eta Errioxan ere, herrixketan bezala hiriburuan ere. Arabaren modernutasunean txertaturik dago, dagoeneko, bertoko euskara, eta herritar gehienek borondatearen gain eraiki ahal izango da espero den etorkizun hobe. Landazuri historilari arabar handiaren ametsak egia bihurtu litezke bi mende geroago.»

Arabak, bere lurraldean eta historian -betidanik, esan ohi den bezala- bizirik izan du euskara. Esan behar da, gainera, herrialde hau kultura, hizkuntza eta herrientzat topaleku irekia izan dela gizaldietan: zinezko topaleku emankorra iraganean, eta halakoxea gaur egun ere.



**UDAKO
HAMABOSTALDIA !!**




**GASTEIZ
KIROLAK**

OFERTA EZIN-HOBEAK ARTIKULO GUZTIETAN
ZAIN GAITUZU !
GENERAL ALAVA KALEA, 1 • GASTEIZ



ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ

Adurtza

Adurtza dugu auzune-bizitzari zein -izateari oraindik ere eusten dioten Gasteizko auzo bakarrenetakoa. Horretaz harro dira bertakoak. Hala agertzen dute, gainera, bere nontartasunaz galde egiten zaien bakoitzean; haien erantzuna biziki azkar dator: "Adurtzakoak!". Garbiñe Fernandez de Landak, "Adurtzakoak" Auzokideen Elkarteko partaideak, lagundu digu auzune horretako kekkak eta bizi-pozak zuenganatzen.


Asier Perez de Karkamo

GEU GASTEIZ: Zortzi mila biztanle besterik ez duen auzune batean, denek ezagutu behar duzue elkar, ez al da horrela?

GARBIÑE FERNANDEZ DE LANDA: Ez pentsa! Urte batzuk atzera, auzo eraikitzen ari zirenean, sekulako elkarkidetza sortu zen denen artean. Egun, ordea, ezin dugu gauza bera esan. Plazaratzen diren arazoei aurre egiteko jenderik egoten da, mugitzen den jendea, alegia, baina azkenean jende berbera izaten da beti.

G.G.: Zeintzu dira egun esku tartean darabilzkizuen arazoak?

G.F.L.: Olarizu Aldea osatzen dugun Adurtza, Aretxabaleta, Errekaleor eta San Kristobal auzook Hegoaldeko Gizarte



Etxearen proiektua eraikia ikusi nahiko genuke. Gasteizko lehenengo proiektua da, baina Defentsako Ministeritzarekin dauden oztopoak bide, oraindik ez da egitasmoa burutu. Dagoeneko lau aldiz ikusi ditugu planoak, baina ez dugu horretan gehiegi sinisten. Gizarte Etxe hori aintzinako Eritetxe militarren gainean eraikitzekoa zen, Unibertsitate-Kanpusaren alboan.

G.G.: Ba al duzue bestelako buruhausterik?

G.F.L.: Bai, jakina. Ekialdean badugu beste arazo larri bat: Uritiasoloko industrialdea. Seguru asko akats bat izan zen industrialde bat hor ezartzea auzoetatik hain hurbil baitago. Ondorioz, kamioi trafiko handia jasan behar dugu orain. Esaterako, Azkoaga lantegian oso kamioi luzeek aparkatzen dute eta horrek enbarazu handia eragiten digu bertakooi.

G.G.: Lekuz oso estu zabiltzate, beraz.

G.F.L.: Bai, eta eraikitzeko oso leku gutxi dago. Bertako hainbat gaztek hemen geratu nahi du bizitzen beti hemen egon delako. Baina ez dago lekurik. Auzoa zaharra da jada eta, agian, berrikuntzarako egitamu baten beharrean dago.

G.G.: Adieraziriko arazoen konpon-

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat


Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ketan ez ezik, zertan diharduzue Gizarte Egoitza honetan?

G.F.L.:Kultura ere lantzen dugu. Euskara zabaltzen ere saiatzen gara. Lehen auzoan Gau Eskola bat zegoen. Orain, langabezia dela medio, beti izkuterik egon diren arazo batzuk agerian geratu dira. Oso zaila da bazterreko ume edo gazte batek euskara ikasteko esatea hutsune larriagorik duen birtartean. Edozein modutan, gure Ikastolak 10 urte bete ditu aurten eta hori oso berri pozgarria da.



ABASTOS AZOKA



BIZTANLEAK:

8.000 inguru.

LANBIDEAK:

Langileak; adin guztietako jendea.

HISTORIA:

Lehen "Edur Zaharra" zuen izena.

Lantegiek eskatzen zituzten langileei bizilekua emateko sortu zen auzunea. Entrepresa horietako aipagarrienak hauexek ditugu: Heraclio Fournier, B.H. eta Esmaltaciones San Ignacio izenekoak. Auzoa jaio zeneko garaiko etxe eta baserriak ikusi ahal izan dira bertan duela gutxira arte.

BERDEGUNEAK:

Olarizuko zelaia eta Adurtzako parkea.

MONUMENTUAK:

Heraclio Fournier karta lantegia (egun etxeak eraikitzeke botatzen ari direna).

TALDEAK:

Ekin euskara taldea.
Adurtza dantza taldea.
Adurtzako Gazteak taldea.
Emakumeen eskola.
Mendi taldea.
Askagintza.

EPA taldea (jendetsua eta auzokoek ekimenez sortua).
Gizarte etxean:
-Kultur batzordea.
-Eskolarako laguntza.

DUELA

GUTXI agertu zen

berriro ere egunkarietako orrialdeetan Foru Plazaren inguruko polemika. Izan ere, eztabaidagarri izan da hasiera-hasieratik Eduardo Txillidak egin zuen lana. Guk ez dugu horrelako polemiketan sartu nahi. Horrexegatik, aspaldiko argazki hau ekarri dizuegu. Han, Foru Plaza eraiki aurretik bertan zegoen Abastos azokaren irudia ikus dezakezue. Ederra, ezta?

BA AL ZENEKIEN ?

...azoka 1.930ean eraiki zutela burdinez eta kristalaz, garai hartan bere arkitektura aintzindaria izan zelarik?

...ordurarte Correria kalean zegoela azoka zaharra?

... gaurregungo azoka dagoen Santa Barbara plazan gudaletxe bat zegoela?



★
IZTABERNA
ARRA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Emakumeentzako autodefentsa ikastaroak Gasteizen



Emakume batek jasan ditzaken erasoak era askotakoak izan daitezke. Horiei aurre egiteko ikastaro berezi batzu antolatu izan dira ikasturte honetan zehar Gasteizko gizarte etxe guztietan. Emakumeei eraso fisiko zein psikologikoei erantzuten erakustea izan dute helburutzat Mila Zabala eta Charo Ramirez begiraleek.

Olatz Irizar

PASA DEN URTEAN Gasteizko emakumeen asanblada eta Udala akordio batzuetara heldu ziren. Horien arabera kurtso osoan zehar (hau da, urritik ekainera bitartean), Gasteizko emakumeei autodefentsarako ikastaro batzu egiteko aukera eman zaie. Ikastaroak astebete-koak izan dira, egunean bi orduz.

Autodefentsaren teknikak

Autodefentsaren oinarria hauxe da: "teknika fisikoak teknika psikologikoei nahastea" azaldu digute Charo



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

MIKO
izozkiak

“Autodefentsan teknika fisiko zein psikologiko nahasten dira”

Ramirez eta Mila Zabala ikastaroen begiraleek.

Teknika fisikoak zenbait arte martzial motetan oinarritu arren, ikasteko oso errazak dira nonbait. Leku oso jakinetara zuzenduak daude teknika horiek eta ezuzteaz baliatzen dira: emakumea eraso baten aurrean dagoenean agresoreak ez du inolaz ere espero emakumearen erantzunik.

Teknika hauek terapia psikologiko batzuekin osatu behar dela argi azpimarratu dute ikastaroaren begiraleek. Beren esanetan, “psikologikoki ziur ez dagoen emakumea blokeatuta gera daiteke”.

Terapia horien bidez eguneroko egoerak aztertzen dira, relajatzeko ikasten da, autokontrola lantzen da... “Ezetz esaten ikasten dute emakumeek, oihuka egiten. Emakumeen arteko komunikazio eta elkartasun gune bat eratzea da garrantzitsua”.

Ikastaroen zatiketa

Ikastaroak bi zati dauzka. Lehenengo orduan alde fisikoa lantzen da: ostikadak nola eta noiz eman. Emakumeak gorputzaren atal guztiak erabiltzen ditu agresio fisiko zein psikologikoei aurre egiteko, begirada...

Bigarren ordua, aldiz, emakumeen barne psikologia ezagutzearen saiakera da. Emakumeen funtzionamendua aztertzen da, horren zergatiak ... Begirale hauek esaten dutenez “Emakumeen autoestima oso baxua dela ikusi dugu ikastaro guztietan”.

Autoestima

Autoestima lantzea bereziki garrantzitsua da autodefentsa ikastaroetan. “Hezkuntza mailan emakumeen autoestima oso baxua da”. Emakumeak ez dira bizitza publikoan aritzeko hezitzen. “Emakumeak emakume izatearen kontzientzia izan arren, autoestimarik ez du izaten gehienetan eta horrela azaltzen da problematika askotan”.

Ikastaroen helburu nagusia errealitate horren kontzientzia hartzea litzateke.

“Emakumeen autoestima oso baxua ikusi dugu ikastaro guztietan”

Behin hori hartu ondoren emakume bakoitzak bere arloan egin behar du lan, nork bere etxean, lanean, familian...

Ikastaroetan izan diren emakume guztiak gustora egon direla aitortu digute Charo eta Milak, “dena den, denbora gutxi iruditu zaie. Leku eta denbora gehiago behar dira emakumeen artean hitzegiteko”. □



Oraindik garaiz gaude !!



IKASTAROOTAN oraindik eskuhartu ez duten emakumeak asko dira oraindik. Horientzat ikastaro gehiago antolatu dira datorren ikasturterako. Irailean Landatxo gizarte etxean egingo dira, urrian Ariznabarran, azaroan Europan edo Pilarren eta abenduan Arriagan. Hauetako batetan parte hartu nahi izanez gero 28-18-42 telefonora deitu baino ez da behar.

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ


azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA



ZEIN DA
hurrengo fitxa?


ZEIN DA falta den letra?

G	A	Z	T	E
A	U	L	K	I
B	A	K	A	R
A	N	D	R	E

Pertsonaia Ezkutua

Ondoko pista hauekin igarri behar duzu zein den gure pertsonaia ezkutua?

1. Zalduendon jaioa
2. Urtero dator Gasteiza
3. Baserritarrez jantzita etortzen da.
4. Eguraldi ona egin arren, euritakoa darama
5. Ardoa gustatzen omen zaio



UDAZKENEAN MINTZATUKO GARA

BARNETEGIAK

Lesaka, Leitza, Arantza, Etxalar, Doneztebe • 2, 3 eta 4 aste • Uztaila, abuztua eta iraila

IKASTAROAK

Uztaila eta iraila. 2 eta 5 ordu. EGA, mintza eta sakontze. Uztailean 3 ordu gaztetxoentzat

GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22)
ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)

PINTO: Pintoreria 74 (28 97 80)

MATRIKULAZIOA: ekainaren 6tik aurrera



ean



/ 3 - 7 / 4 - 6 / 2 - 8

/ 5 - 5 / 1 - ? /

ZEIN DA falta den zenbakia ?

JARRI kenketa edo gehiketa,
egin behar den operazio
honetan:

$$8 \boxed{+} 3 \boxed{-} 4 = 7$$

$$5 \boxed{+} 1 \boxed{+} 3 = 9$$

$$7 \boxed{+} 4 \boxed{-} 6 = 5$$

$$1 \boxed{+} 1 \boxed{-} 2 = 0$$

ErAntZuNAk

(Buelta eman)

detektibe ona izateko bidean zaude!

Zer? Igarri duzu, ezta? Ba, bai Gasteizko

jaietako pertsonai ezaguna zen. Zorionak,

1 + 1 - 2 = 0

7 + 4 - 6 = 5

5 + 1 + 3 = 9

8 + 3 - 4 = 7

Anboto - Bizkaia

Orhi - Lapurdi



Aitzgorri - Gipuzkoa

Donato - Nafarroa

Gorbea - Araba

Falta den zenbakia 9 da

Falta den letra A da




kide
APAINDURA
Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Pako Galdos

Figura izatera iritsi ez zen txapelduan



Pako Galdos Gauna Lasarten jaio zen orain 47 urte. Arabarrok izan dugun txirrindularirik onenetariko bat dugu lasartearra, dudarik ez. Tour-eko irteera puntuan 11 aldiz izan da, eta Italiako Giro-an, berriz, 6. Galdosek ez du inoiz patrikaratu sona handiko birarik. Alabaina, bere lekua podiuma edota ohorezko postu bat izaten zen beti

Ismael Diaz de Mendibil

ORAIN HIRU URTE Miguel Indurain atarrabiarrak maglia arrosa jantzi zuen aurreneko aldiz, Bartzelonako Olinpiadetako urtean, hain zuzen. Geroztik 17 urte igaro dira estatuko txirrindulari batek maglia arrosa jantzi gabe; azkena, 1975. urtean, nola ez, Pako Galdos izan zen. Hamar egunez ibili zen arrosaz arabarra Italiako errepideetan zehar. Beraz, estatuko txirrindulariek bizkar gainean zeramaten urte luzeetako lehortaldi horri amaiera eman zion Miguel Indurainen balentriak.



*HegoAmerikako
jantzirik
ederrenak*

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoiaren ertzean
TELEFONOA: 25 03 52 GASTEIZ

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfn: (945) 146261 • Fax: (945) 143509
01001 GASTEIZ



1975eko Giro hura

Stelvio mendatean bukatu zen 1975eko Giroa. Munduko mendaterik gogorre-tariko bat dugu Stelvio izena duen hori; bere 2.758 metroetatik zerua hurbil sentitzen dute txirrindulariek. Bortuak 27 kilometro ditu; horietan gaindi 1873 metro egiten du gora bideak. Zenbakiak agerian uzten dute, beraz, aldapon gogortasuna. Igoera bukaezina, portzen-taia handiak dituen, madarikatua... Urte hartan Pako Galdosen ametsa horretantxe

**Galdos indartsuena
izanda ere, Bertogliok
irabazi zuen 1975eko
Giroa**

gelditu zen. Lasartearra zerua eskuez ikutzekotan ibili zen. Sailkapen oro-korrean bigarrena zegoen kokaturik arabarra; artean, lehenengoa, Fausto Bertoglio italiarra. Bien arteko aldea 41 segundutakoa zen. Galdosek etapa ahaztezin hura irabazi zuen indartsuena nor zen erakutsiz. Halere, ez zuen bere buruarengan behar adina konfidantza izan, eta ez zion gogor ekin erasoari. Aldapa osoan zehar ez zuen Bertogliok Pakoren gupila begi bistatik galdu. Azkenean, 47 segundu horiek aski izan ziren "tifosiek" bere herikidearen ga-raipena ospatu ahal izan zezaten. Eddy Merckx, Zoetemelk, Jose Manuel Fuente "Tarangu" eta abarren garaia zen. KAS talde gasteiztarrari ez zion munduko inork itzalik egiten.

Ordutik hona Pako Galdosek hain-batetan entzun behar izan du ez zuela bere aukeretan konfidantzarik izan. Harrigarria badirudi ere, arabarra bat dator gisa horretako iritziokin: "Egia da buruz edo gogoz makala nintzela. Geroztik txirrindularitza dexente aldatu



da. Orduan, esaterako, ez genuen pres-takuntza psikologikorik". Hortaz, guztiak ados.

Gure gaurko protagonista Giro, Tour eta Vueltan bigarrena, hirugarrena, lauga-rrena, bostgarrena... sailkatu da baina bira handietan ez da inoiz lehenengoa izan. Guk honela laburtzen dugu: figura izatera iritsi ez zen txapelduna.

"Oliver Hardy" tropelaren barruan

Anekdotei ere tarte bat utzi nahi izan diegu. Pakok ezin du bere bizitzaren garai hura ahaztu. Orduko tropelak "Oliver Hardy" deitzen omen zion, "lodia eta argalaren" protagonistetako bat. "Nire belarriak eta "argalarenak" antzekoak dira", arrazoitu du farrezka Galdos

txirrindulari ohiak. Antza, garai hartako Giroetan talde italiarren buruek ez zuten lan handirik egin behar trikimailuetan ederki jantzitan baitzeuden: "Italiarrena lotsagarria zen, ikusi behar zenuten zelan bultzatzen zuten eskuz taldeko liderra". Italian harrigarriena arrunt bihurtzen da, han beti garrantzitsuena izan baita etxeko batek irabaztea, tranpa eginda ere. Galdosek bi taldekide ditu gogoan: Santisteban eta Fuente. "Santisteban Giro bat hasi bezain pronto, hil zen. Pentsa zein egoeratan gelditu zen KAS taldea Giro hartan", ekarri du gogora saminez. "Fuente edo "Tarangu" hunkigarria zen; Tourreko etapa batean 10 minutu galdu eta gero, bere logelara joan nintzen, animoak emateko asmoz. Gela kez gainezka zegoen, erretzaile porrokatua baitzen asturiarra". Bere harridurarako honako hau esan zion lasartearrari: "Lasai



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18

Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05

Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92

Eguneko menua

**Belarriak zirela
medio, «Oliver Hardy»
ezizena ezarri zioten
tropelean**

Pako, gainerakoak hauts eginda utzi ditut eta". Nola esan eta hala egin: Tour horretan 5 etapa irabazi zituen Taranguk.

danik Alaveszalea izan naizela". Gero hau gaineratu: "Etapak bukatu bezain laster Alaveseko emaitza jakitea izaten zen nire aurreneko kezka. Aurten ez da posible izan -jarraitu du txirrindulari ohiak-, baina datorren urtean igoko gara". "Hala izan bedi" batez agur egin genion Oliver Hardyri. □



**Pizza uneoro eta bizikleta
tarteka**

Hainbat urte dira Pako Galdosek pizzeria bat zabaldu duela Gasteizen. Horren izena: "Dolomiti", Alpe italiarretako mendiak bezalaxe. Bertan utzi dugu txirrindulari ohia. Noizean behin lasartearrak bizikleta hartu eta buelta bat ematen du hortik zehar. Hori bai, telebistan txirrindularitza-saiorik ez den orduetan. Bestela, ezin hutsik egin emanaldiari, Indurainzale amorratutzat jotzen baitu bere burua. Bere ustez, Arabak eta Euskal Herri osoak txirrindulari onak ematen jarraituko dute. Dena den, batek daki zer gertatuko litzatekeen arabar horrek gaurko txirrindularitzak dituen baliabideak izango balitu. Bukatze aldera, honakoa adierazi digu: "Ipin aldizkarian beti-



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

Araban barrena

ORAINGO HONETAN Araban barrena mendiko bizikletaz ibiltzera gonbidatu nahi zaitugu. Hona hemen, txango polit bat.

Zuiako bailara izango da ibilaldi honetarako abiapuntua, Murgia herria, hain zuzen ere.

Gorbea inguruetan hainbat erreka sortzen dira: Padrobaso, Larrekorta, Ugalde, Zubialde, Undebe eta, handiena, Baias erreka.

Landaretzari dagokionez, bi motatako arbolak dira nagusi: pagoak eta haginak. Hala ere, beste espezie batzuetakoak ere landatu izan dira, hala nola haritzak, pinuak eta Lawson altzifresak. Espezie guzti horietako arbolak ikusteko aukera ez ezik, txilarra, gorostia eta otsalizarrak ikusteko aukera ere eskaintzen du ibilaldiak.

Faunari dagokionez, berriz, hona bertan ikus litekeen animaliak: oreinak (gizonak sartuak inguru horietara), azeriak, basurdeak, azkonarrak, basakatuak, lepazuriak eta abar. Hegaztirik ere ikus liteke: zapelatzak, miruak eta belatzak, esate baterako.

Gorbea inguru horietan, bestalde, leize eta haizulo ugari daude. Besteak beste, Mairu-elegorretako haizuloak (12.340 metro luze) edo Urrikobasoko Lezandia (301 metro sakon).

Guztira, 250 bat kilometro karratuko eremua hartzen du Gorbea mendi inguruak. Natura oparoa da bertan, eta paisaiak ederrak. Guztia ere, ondo zaindu beharrekoa.



Gorbea: naturaren oparotasuna

0 km MURGIA

Autoa Murgian utzita, errepidez egin Zaraterainoko bidea. Berotzeko aukera ona!

Murgian bertan bukatu ahal izango duzue gero ibilbidea.

2,7 km ZARATE

Herrian barrena, iturriraino jo.

Gurdibide bat dago hor.

Hortik aurrera segi eta, langa pasatu ondoren, gora egin pinudian barrena, goiko leporaino.

3,7 km LEPOA

Bidean aurrera segi, lehenengo behera eta gero berriro gora (aldapa ederra!).

Laugune motz baten ondoren ganaduarentzako burdinsare batera iritsiko zarete.

5,5 km BURDINSAREA

Hori pasa eta, aldapatxoan gora, igotzen segi bidegurutzeraino.

7,1 km BIDE GurUTZEA

Ezkerretatik jo. Eskuineko bidea Muruara doa.

Aldapa gogor xamar bat igo ondoren, beste bidegurutze batera iritsiko zarete.

7,7 km

2.BIDE GurUTZEA

Aurrera segi. Eskuineko bidetik Pagazuriko aterpera joaten da.

Goraka doa bidea, lepo bateraino. Bertatik gailurreko gurutzea ikusten da. Ondo markatuta dagoen bidean aurrera segi, haraino.

Elurbilduen inguruan bizikleta gainetik jaitsi beharra dago, oso gogorra baita aldapa hor.

12,8 km GORBEAKO GurUTZEA (1.481 m)

17,8 km MENOIOKO ETXOLA

Gorostianoko hespolean dago kokatua.

Hortik aurrera argiago ikusten da bidea. Behera

segi, Baias erreka ondo. Arrantzaleen txabola baten parean aterako zarete.

22,8 km BAIAS ERREKA. ARRANTZALEEN TXABOLA

Erreka baxterretik doan gurdibidean behera segi, Sarriara iritsi arte.

29,6 km SARRIA

Hortik Murgiara, errepidetik.

31 km MURGIA


OHARRAK

Gailurrean behelainoa baldin badago eta inguruak ondo ezagutzen ez badira, igotako leku beretik jaistea komeni da.

Udaberriko nahiz udarako egokia.

Bainatzeko moduko leku ugari daude Baias errekan.

Luzera: 31 km
Denbora: 3 ordu
Zailtasuna: **HANDIA**
Interesgarritasuna: **
Distantzia, Gasteiztik: 20 km
Bizikletaz: %99a



UDAKO HAMABOSTALDIA !!



**GASTEIZ
KIROLAK**


OFERTA EZIN-HOBEAK ARTIKULO GUZTIETAN.
ZAIN GAITUZU
GENERAL ALAVA KALEA, 1 • GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

JATETXEA



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

DENBORAPASA



ZE HARRETARA

1. Autengo Araba Euskaraz egin deneko herria: Tarragonako autoetan. 2. Modu. Biezkaieraz omen. Lo egitearen ondorioa. 3. Musika nota. Lehena. Utzi, nagi. 4. B. Atxagaren nobela famatua. 5. Lehena. Edateko. Borea. 6. Nirera ekarria. 7. Hidrogenoa. GEU elkartearen hasierako izena. Gailur, goi. 8. Hitz. Amnesty International. 9. zimendua, oinarria. Biotz. 10. Antolatua. (Ald.) Joaten ari zara.

GOITIK BEHERA

1. Txoro, memelo. Busti. 2. Gure probintzia. Lortu aditzaren infinitibea. 3. Haurren hizkeran musta. Lehena. Euskal argitaletxe bat. 4. Urainoa. Etxeko animalia. Kanpo, landa. 5. Bokak errepikatua. Emakume izena. Urainoa. 6. sorbaldatik gerriraino. Iodoa. 7. Berrogeita hamar. (Ald.) Ira, iratzea. (Ald.) zenbakirik gabe. 8. Beterinaria. 9. Bokalak. Interjektzioa. Nongo atzizkia. 10. Jatorri atzizkia. Baldin banaiz.

LAGUN BATEK beste bati:

- Pentsua oso garestia denez, zerrautsa ematen diet nik oiloei jateko. Eta zuk zein janari ematen diezu zurei?

Besteak:

- Nik ohizko pentsua, bestela arraultzak baino zibak (tronpoak) errungo baitituzte, zure oiloek egiten duten bezala.

LAGUN BATEK beste bati:

- Nire bizitzak ditu gauza xelebreak, alajaina! Esaterako, ni soto batean jaio nintzen eta orain metroan egiten dut lana.

Besteak:

- Hori ez da ezer nirearekin alderatuz gero. Ni atiko batean sortu nintzen eta geroztik hodeietan bizi naiz.

GIZON BATEK emakume bati:

- Maria, gure arteko amodioa ezinezkoa da. Emakumeak:

- Zergatik bada, ene Juan laztana?

Gizonak:

- Joño, horrexegatik ba, ni ez naizelako Juan.

MENDIZORROTZAKO HARMAILETAN

talde ultra horietako bateko mutil bat maldizioka ari zen egundoko hitzak ahotan ibiliz epailea dela, kanpoko taldeko aurrelaria dela... Halako batean, gizon bat hari hurbildu eta honela esan zion:

- Zer esango luke zure aitak horrelako berba zikinak entzungo balizkizu?

Mutil ultrak:

- Ba... "miraria, miraria" esango luke aspaldidanik gorra da eta.

MORROI BAT hilbeila batera iritsi,

kandelak itzali eta hau esaten du kantuka:
- Zorionak zuri, zorionak zuri....

HEGAZKIN BATEKO azafatak hau

iragartzen du bozgorailuetatik:

- Bidaiariok, bi albiste eman behar dizkizuet, bata txarra eta bestea ona. Gizon batzuk hegazkina bahitu dutela da txarra; ona, berriz, Caribera joan nahi dutela.

Zaldiko maldiko

Xakeko zaldunaren maugimenduez baliatuta eta nabarmendu egin den silabatik abiatutik, osa ezazu Orson Welles zinegile famatuaren esaldia.



GI	E	DUN	A	NA
JA	I	ZO	DI	RIA
NA	TZIK	ZAN	REN	TZE
DA	I	RI	MO	UN
GAI	ME	HA	O	ZO

ERANTZUNAK

Gizonaren zorigaitzik haundiena memoriadun jaiotzea izan da.

Z	V	O	Z	N	I	V	B	E	01
I	K	I	B	V	L	O	Z	6	
V	H	I	V	E	T	E	8		
N	I	V	G	T	E	G	H	7	
V	N	T	V	A	N	I	R	E	9
B	I	R	V	D	E	V	5		
K	V	O	V	K	V	A	B	3	
H	O	B	V	Z	V	V	4		
V	L	O	V	I	V	V	2		
L	V	A	V	E	B	L	V	1	
01	6	8	7	9	5	3	4	2	1



HEGOALDE
euskaltegia

Florida 58, behe. Tfnoa. 284196 - 01005
GASTEIZ

UDA
IKASTAROAK

Uztailetik Irailera
Gasteizen eta Barnetegiak
Saran eta Bakaikuan

Trikitixa Kontrairo taldea & the big band (probisionala)

MUSIKARI DAGOKIONEZ, ez dugu Gasteiz batere hiri arrunta. Soinu berezia dauka, Sevillako kolorearekin gertatzen den bezala, edota agian biak, kolore eta soinu, gure hiriko kasuan. Ez dakigu zergatik, baina duela hamabi urte rock eta ska musika elkartu ziren gure kaleetako giroa berotzeko, beranduxeago reggearen unea izan genuen, hardcoreari begiratzeko gero. Hala eta guztiz ere, betidanik Gasteizko musikaren ezaugarri nabarmena zena, freskotasuna hain zuzen, ahazten ari ginen azken bolada honetan, Zer gertatzen zen orduan?, instituzio aldetik ez ziren laguntzarik jasotzen? Ez pentsa, horiek beti eskasak izan dira. Musikagileak ez ziren Jazz-ean aritzen? Ez, hori beti kanpotik eka-rritakoa izan dugu. Orduan zer? Batek daki!

Badirudi, gure hiriak, hainbat urte musika sortzen eta asmatzen eman ondoren, atsenalditxo bat behar zuela. Hala ere, ez da luzerako izan. Urtebete besterik ez dute behar izan Trikitixa Kontrario Taldeko lagunek bere proiektua martxan jartzeko. Gero eta kontzertu gehiagotan parte hartzen dute, aurtengo Araba Euskaraz-en ere leku bat aurkitu dute. Guzti hori gutxi balitz, lehendabiziko maketa bat salgai dago.

Urrats azkar horren errudun bakarrak, noski, eurak ditugu:

taldekoak eta lagunak: Gaztetxean antolatutako festa batean jotzeko kasualitatez bildu ziren hamaika musikagile.

Egun hartan entzule egon zirenek entzundakoarekin pozik, jarraitzera animatu zituzten. Arazoak badituzte, jakina!: garraioa, esate baterako. Hainbat lagun eta musika tresna alde batetik bestera mugitu ahal izateko beharrezkoa da kotxe bat baino gehiago. Gainera, bitan gertatu zaie nonbaitera joan eta jotzen ez uztea gehiegi zirelakoan. Gehiegi!? Festa batean inoiz ez da gehiegi.

Horrelakoak ditugu, bada: Gasteizkoak, euskaldunak eta parrandazaleak. Beraiekin festa dator, beroa, freskoa, dena batera, zergatik ez? Sortzen duten musikan berdin gertatzen da: trikitixa nonahi, baita rock eta saltsa ere. Musika herrikoia egungo estiloei heltzen zaizkie hamaika lagun hauen eskuetan. Horra hor San Antonio Koplak, Atarratzeko Jauna, Kubako kantak, Muñeira bat, edota «Guk Euskaraz» kanta rap bihurturik.

Nondik datoz udako haizeak,...? Gasteiztik berriz ere.



Joxemari -Txabi Arnal Gil

**Zerbait saldu, aldatu,
erosi behar baduzu hots
egiguzu edota
eskutitzez bidali horren
berri. Dohanezko
iragarkien sail berri bat
ireki nahi dugu
SALEROSKETAK**

IMA kanpinerako erremolkea

- Inertzia-galgaz • 3 gela •
- parrila eta arkoia • ia
- berria • Abatiblea •
- Tfnoa: 26 76 98

Goizeko 10etatik gaueko 8etara

KANGEUROAK

(ume euskaldunak zaintzeko
begiraleak) behar ditugu

☎ 26 25 92

**Ume euskaldunak
zaintzeko prest
nauzue!**

☎ 26 25 92

GEU elkartearen bazkideen biltzar nagusia



MAIATZAREN 27AN, ostiralez, GEU elkartearen bazkideen Batzar Nagusia izan zen. Ekitaldi horretan elkartearen Batzorde Eragileak 1993 urteari zegozkion memoria eta balantzea aurkeztu zituen. Halaber, aurtun urratu beharreko ihardunbidea zehaztu eta onetsi zuten hara bildurikoek.

Elkarteak bideratutako ekimenei dagokienez, GEU Gasteiz aldizkaria bera dugu bere lan emankorraren adibiderik nabarmenena, dohainik eta euskara hutsez iristen baita Gasteizko 5.000 etxetara esku tartean duzun hilabetekari hau. Hori ez ezik, euskarazko hezkuntza sustatzeko ekinaldietan ere hartu du parte elkarteak hurrengo ikasturtean eskolan edo ikasto-

lan hasiko diren haurrei zein ertainetako ikasketei ekingo dien neska-mutilei zuzenduz bere eginahala. Las-ter batean, "Udan lagun berri bat" elkartrukatetarako kanpaina burutuko du GEU elkarteak.

GEU elkarteak eledunen arabera, "aurtengo lehentasunik lehenenek bi ardatz nagusi izango dituzte: batetik, Gasteizko kultur elkarte eta erakunde- den arteko koordinazioa bultzatzea eta elkarren berri izateko bitartekoak jartzea; bestetik, kultur eta lan mundu euskaldunaren esparruan (irakaskuntza, administrazioa, etab. barne direla-rik) oinarritzko Hizkuntz Hitzarmene- rako adostasuna eta baldintzak sor- tzen ahalegitea".

Animo eta aurrera!

JLZZ GASTEIZKO XVIII. JAZZALDIA



21,30etan
MENDIZORROTZAN:

Uztailak 12
Stanley Clarke • Al Di Meola •
Jean-Luc Pnty "Rite of
Strings" Marcus Miller Band

Uztailak 13
Kenyy Barron Trio • Joe
Henderson Quartet

Uztailak 14
The Duke Ellington Orchestra
• Natalie Cole & UMO Jazz
Orchestra

Uztailak 16
Djavan • Toots Thielemans
Brasil Project

XXI MENDEKO JAZZA

Cyrus Chesnut Trio • Russel
Malone • Bheki Mseleku •
Noa/Gil Dor • Black Note •
Dabe Tronzo Trio

GAUERDIKO JAZZA

12tik 16ra Canciller Ayala eta
Ciudad de Vitoria hoteletan
Hank Jones Trio • Danilo
Perez/David Sanchez Quartet

JAZZ KALEAN

Uztailaren 9, 10, 11 eta 12
Regal Jazz Band

Nazioarteko FOLKLORE jaialdia

Uztailak 26 • 22etan
Burundiko danbor-joleak •
Bielorrusiako «Polesiako»

egunsentiak» taldea

Uztailak 27 • 22etan
Peruko «Amankay» •
Kalmykiako «Oiraty»

Uztailak 28 • 22etan
Japongo taldea • Lithuaniako
«Nemunus» taldea

Uztailak 29 • 22etan
«Idiak» Indarra eta Manuel
Iradier taldeak

Uztailak 28 • 22etan
«Errementariaren Dantza»



GEU re
egunak

HITZALDIA

BIBLIA: arte edo erlijioa?

Luis de Ajuria Aretoak
Uztailak 14, ostegunez
arratsaldeko 7,30etan

Dionisio Amundarain

AMILAMIA



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

EUSKADI TOURS TXANGOAK



Uztailaren 12an • *Donibane Garazi*
Uztailaren 14an • *Plentzia • Gorriz*
Uztailaren 19an • *Hondarribia*
Uztailaren 21an • *Hendaia*
Uztailaren 26an • *Donostia*
Uztailaren 28an • *Lekeitio*

Prezioa: 600 pezeta
Apuntatzeko: Pintoreria 68
16 eta 30 urte bitarteko
gazteentzat soilik

GASTEIZ-GAZTEA MAKROFESTA

Sariak
Karaoke pantaila
Rockaren gurpilean
Zozketa

Uztailaren 29an Molinuevo frontoian
gaueko 9etatik aurrera.

ez ahaztu
UZTAILAK 25
SANTIAGO
EGUNA

SUKALDE TXOKOTIK



EUSKAL SUKALDARI- TZAREN

aintzinateari begiratu
azkarra egin ezkeru,
berehala ohartuko
gara otorduari
amaiera goxoa eman
diezaioketen hondar
platerak erruz izan
direla betidanik. Gure
baserrietako postre
peto-petoean adibide
garbi bi
dakartzkizuegu
oraingoan.

AIE

Osagaiak:

- Litro bat esne
- Irina: 6 goilarakada edo 60 gr.
- 300 gr azukre

Nola egin:

Katilu batean ezarri 6 goilarakada irin. Horri esnea gaineratu ezarizarian eta dena batera nahasi. Litro bat esne hurbildu sutara; gero, irakiten duenean gehitu poliki-poliki lehengo nahasketa (esne hoztak eta irinak osaturikoa). Jarrai-

an, azukrea bota. Ordu erdiz irakiten eduki.

Baserrietan nahasketa esne hotzari gehitzen zioten; eltzea sutara hurreratu eta irabiatu egiten zuten irakin arte. Ondoren, azukrea bota eta ordu erdiz irakiten eduki. Luzeago jotzen badu bor-borrean, hobe; horrela goxoagoa izango da eta garestiagoa ere bai (irakitean esne kopurua gutxitzen denez, gero gehitu egin behar da gehiago). Kanela hautsa bota daiteke gainetik mahaira eraman aurretik. Esnegainik gabeko esnea erabili ezkeru, azukre gutxiago bota eta esne trinkoaz indartu esnea.

MAMIA (GATZATUA)

Osagaiak:

- Litro bat esne
- Asunak: sorta bat
- Bildots-gatzagi apur bat

Nola egin:

Ardi esnea egosi eta hozten utzi.

Gero, katilu batean ezarri esne-gaina. Asun piloa paratu iragaztontzi batean eta esnea iragazi inolako zikinkeriarik izan ez dezan. Bildots-gatzagi apur bat urez nahasi eta trapu txiki batetik igaro ondoren gaineratu dena esne epelari. Esnea irabiatu eta partitu hainbat katilutan, eltzetan edota buztinezko lapikotan. Esnea gatzatzen denean, hasieran kendutako esne-gaina bota horren gainetik.



Bacalao Giraldo

• Egunero makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 13 98
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 27
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	17 28 43	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	14 78 22	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!



Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrak egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.